

DOLOREETACO
BIRJIÑ AMAREN

BEDERATZI-URRENA



TOLOSA-N:

**Francisco Muguerzaren moldiztegia
1912-garren urtean.**



DOLOREETACO
BIRJIÑ AMAREN

BEDERATZI - URRENA.



R. 2907
N. M. 2880
R. 34812

ATV
17.778


DOLOREETACO
BIRJIÑ AMAREN
BEDERATZI-URRENA




Neurtitzac beren musicaz azken
aldean daude.

OBISPO JAUNAREN BAIMENAZ

TOLOSA-N:
Francisco Muguerzaren moldiztegian
1912-garren urtean.





DOLOREETACO BIRJIÑ AMAREN

BEDERATZI-URRENA

Gurutze Santuaren siñaleagatic gure etsayetatic libra gaitzatzu gure Jaun eta Jaincoa. Aitaren, eta Semearen eta Espiritu Santuaren izenean. Amen.

Jesucristo nere Jauna, egizco Jainco eta Gizona, nere Egille eta Salbatzallea, Zu zerana zeralaco, eta guziz gañ maite zaitudalaco, neurrigabeco ontasuna bezela, damu det, damu det, Zu nere Jaungoicoa openditua. Asmo sendoa artzen det, geigo peaturic ez egiteco, eta zure opensaco bide guztiyetatic

iges eguin, eta nere pecatu guztiyac osotoro conpesatze-co: barcatu, Jauna, guztiyac zure Ama naigabetuagatic; nic zure contra egin ditudana- nac beste aimbeste ezpata zorrotz izan bai dira zure Ama maitearen Biyotzeraco. Zure urricaltasun aundiyan ichegoten det, zure graziyan artuco nazula, Beraren Dolo- reacatic; eta laguntza eman- go didazula, nere bizitz gaiz- toa utzi, eta eriyotz ordura- ño beti bizitzeco, Zu eta zure Ama atsecabetua, eta nere Ama Andrea serbitzen.

LENENGO EGUNERACO
OTOITZA

Samiñtasunez betericaco Mariya Birjiña, eta nere Ama maitea, Zure Seme maite, eta Jesucristo nere Jau-naren pausoai Samiñ-calean barrena Gurutzez zamatua zi-joanean, Bere ondoren zerraizkiyozula, eldu ziñan Galbariyoco mendi gogorrera, Espiritu-Santuac deitu zinduan mendi artara. Ar itzatzu, Ama Andrea, bertanichegoten dagozkitzun larritasun guztiyac, eta escañi zaizkiyotzu Aita Beticoari, zure Semearen gorputzean eramana, eta zure Biyotzean joserik daudenac; nere biyotzonon gogorkeriya, samurtu

dedin; eta irichi zadazu, Berderatzi-urren ontan escatzen dizudan mesedea, baldin izan bear badu, Jaungoico bera-
ren gloriraco, eta nere anima-
ren oneraco. Amen.

*(Emen zazpi Agur Mari eta zazpi Glori esaten dira Maria chit Deunaren zazpi dolore aundiyenen oroipe-
nean).*

EGUNORO ESATEN DAN
OTOITZA.

Mariya Birjiña, nere eta beste pecatari guziyen Ama, Gurutzean josiric daucazun Seme bacar eta maite ori Aita Beticoari escañi zayozu, gizon guziyen zuzenbideraco, eta pecatu guziyen ordaiñ osoraco izan dedin; eta esca

zayozu, Ama Andrea, Bere Seme Gurutzean josi-yari begiraturic, eta Zuri, aren Ama maiteari, fedegabe eta sinistausle guziaz urrical dedilla, eta bere Eleiz Santura eracarrri ditzala. Amen.

(Emen bacoitzac sinismen biziz Birjiñ Amari escatuco diyo irichinai luken graziya, issill aldicho bat egiñic).

JESUS GURUTZ-ILTZATUARI OTOITZA.

Gurutzean josiric zauden Jesucristo nere Jauna: ez dedilla, arren, anima bat baccarra ere condenatu, ipiñi ginduzun ezkerro, zure Ama maitearen itzalpean, bere samintasunen seme, negar ascoren

artean sortutacoac bezela; batez ere, beraren samintasun garratzen oroipen eta onran elcarganaturic gaude-noc, inpernuaren esker gaiztoan bada ere, aitortzen degu, aren seme eta mendecoac geradela, beraren negarraz siñalatu eta zure odolaz bustiyac. Era ontan eriyotz orduan, bere semeac bezela artu gaitzatzun. Alassen.

Aita gure, Agur Mari ta Glori bat.

BIGARREN EGUNERACO
OTOITZA.

Samintasunez betericaco Maria Birjiña, eta nere Ama maitea, zure Seme bacar eta Jesucristo nere Jauna, iltzez josia zegoan Gurutzearen

oñean zutic zeunden Berari begira, zenbat oñaze zera-mazkian ecusten, eta nola aizken asnasea eman, eta iltzen zan Gurutze gogor artan munduco pecatuacatic.

Begi garbi eta negarretan urtu oriyec niganontz itzuli itzatzu, eta begira zadazu, nizaz urrical zaitezen, ecusiric, zer egoera triste eta negar-garriyan naucan pecatuac; eta zure Seme gurutz-iltzatu orrengandic irichi zadazu, urricaltasunaz batean, escatzen dizudan mesedea, baldin izan bear badu Jaungoicoaren glori geyagoraco, eta nere animaren oneraco. Amen.

Zazpi Agur Mari eta zazpi Glori.

IRUGARREN EGUNERACO
OTOITZA.

Samintasunez betericaco Maria Birjiña, eta nere Ama Andrea, zure Seme bakar, eta Jesucristo nere Jaunac, aizken asnasea ematera zijoan, Juan Ebanjelari santuaren buruan, munduco gizon guziyen Ama egin zinduan; guziyoi begiratu ziñiguzun, dolore oyetatic sortutaco, zure Semearen maitetasunac Beretzat artu, eta zure contura ipiñitaco umeai bezela: Ar nazazu, Ama guziz beraa, ar nazazu semetzat, eta nere itz, egipen eta gogapen guziyac nere Jaungoicoaganontz zuzendu zaizkidatzu; eta zure Seme Santua-

gandic irichi, escatzen dizudan mesede au; Beraren glori geyagoraco, eta nere animaren oneraco izan bear badu. Alassen.

Zazpi Agur Mari eta zazpi Glori.

LAUGARREN EGUNERACO
OTOITZA.

Samintasunez betericaco Maria Birjiña, eta nere Ama Andrea, zure Seme bacar eta Jesucristo nere Jaunaren inguruan zebiltzan Escribea eta Pariseo ayen artean zeunden, entzuten, esaten zizkiyoten itz gaizto eta lotsagarriyac, eta birao izugarriyac, Beraren garbitasun Jaincozcoa zauritu eta desonratuaz. Garbitu, Ama Andrea,

garbitu zaizkidatzu nere ez-
pañac, nere itz maitetsuaz
charkeri oyec kitatu ditzaiz-
kiyodan, eta aditu nere bi-
yoz-barrengo antsiyac nola
esaten duten: nere Jaun eta
Jaincoa dala, Santutasun be-
ra, Ontasun bera, Garbitasun
bera, Egiya bera; eta bera-
ren Urricaltasunetic irichi
zadazu, escatzen dizudan me-
sede au, Beraren gloriraco,
eta nere animaren oneraco
baldin bada. Alassen.

Zazpi Agur Mari eta zazpi Glori.

BOSTGARREN EGUNERACO
OTOITZA.

Samintasunez betericaco
Maria Birjiña, eta nere Ama
Andrea, zure Seme bacar eta
Jesucristo nere Jaunac Gu-

rutzean bere anima Aita Beticoari entregatuta gero, tormentu guziyac osotoro bucatu zirala, zirudianean, eku-si zenduan, soldadu gudari batec lantza jasoric, Sayetz chit Santua iriki ziyola, batetic bestera igaroric Gurutzean ilta zegoan Gorputz jaincozcoaren Biyotz maitale Santua; era ontan Salba-zioco Atea irikiya gelditzen zala, gizon guziyentzat. Busti nazazu, Ama maitea, Sayetz ortatic issuritaco odol eta ur garbi oriyetan, Ate ortatic betico glorira sartu nadin; eta Jaincoagandic irichi zadazu escatzen dizudan mese-dea, Beraren gloriraco eta nere animaren oneraco, izan bear badu. Alassen.

Zazpi Agur Mari eta zazpi Glori.

SEIGARREN EGUNERACO
OTOITZA.

Samintasunez betericaco Maria Birjiña, eta nere Ama Andrea, Gurutzearen oñean begira zeunden, zure Seme bacar, eta Jesucristo nere Jaunaren Gorputz adoragariya azcatu eta ereisten ziar dutenean; eta beraren Odol guziz aberatsez bustiac zeuden buruan jarri ziyoten arantzazco coroe, eta escu-oñ sagraduetan josi zizkiyoten iltze gogorrac, zedorren escuetan artu ziñituan. Arantz zorrotz oriyecc nere beguiyen gañean para zaizkidatzu, Ama maitea, eta iltze gogor oriyecc nere biyotzean sartu, nic ere zure mindura

eta naigabe oriyec zerbait sentitu, eta zure Samintasunetan parte izan dezadan; pe-catuba gorrotatzen dedala eriyotza baño geyago, pe-catua izan zalaco oñaze, naigabe, eta samintasun orien guziyen ecarlea; eta zure Seme maite orrengandic irichi zadazu nere pecatu guzien barcazioaz gañera, orañ escatzen dizudan mesedea, Beraren glori geyagoraco, eta nere animaren oneraco izan bear badu. Alassen.

Zazpi Agur Mari eta zazpi Glori.

ZAZPIGARREN EGUNERACO
OTOITZA.

Samintasunez betericaco
Maria Birjiña, eta nere Ama

Andrea, zure Biyotzeco Semeari bere buruan parataco arantzazco coroa, eta escuñac jositaco iltze gogorrac muñ eginda bereala, bere Gorputz guziz santua zerorren beso garbietan artu zenduan; ecusi eta begira itzatzu, Ama maite dolorez gain egiña, guizonen gogorkeriyac idikitaco zauri oriec; beguira aizeac legortutaco odol aberatz ori; begira Espiritu Santuac egindaco Gorputz ezin ederrago ori aiñ ichura-gabetua, guziya urratua eta zauri bat egiña. Nere Ama maitea, zure begietaco negar-malcoaz garbitu ezazu, eta ni peccatari errucarri onezaz erruki zaitez, zuri orrenbeste atsecabe eman, eta zure Seme eta nere Jauna, ego-

era cupigarri orretan para dedalaco, egiz damuturic, antsi eta negarretan urtu nadin; eta gañera escatzen dizudan mesede au irichi zadazu, Jaincoaren glori eta nere animaren oneraco izan bear badu. Alassen.

Zazpi Agur Mari eta zazpi Glori.

ZORTZIGARREN EGUNERACO OTOITZA.

Samintasunez betericaco Maria Birjiña eta nere Ama Andrea, guztiya negarretan urturic, malco ayezaz garbitu zenduan, zure Seme bacar eta Jesucristo nere Jaunaren gorputz osotoro itsusitua zegoana; eta azken-laztan gozo garbiya emanic, uken-

duz igortzi, jantzi, eta gertatu zenduan obira eramateco, eta an utzi zenduan zure biyotz maitetsua berarekin batean. Ama maitea, zure baimena indazu, ni ere, zure echecho morroi umillena bezela, progu orretara nere Jau-nari laguntzen jun nadiñ; eta obi orretan Bera para duten, nere pecatuen egizco damua beti iduki dezadan; eta gañera bere ontasunetic irichi zadazu escatzen dizudan mesede au, Beraren glori geyagoraco, eta nere animaren oneraco izan bear badu. Alassen.

Zazpi Agur Mari eta zazpi Glori.

BEDERATZIGARREN EGUNERACO
OTOITZA.

Samintasunez betericaco Maria Birjiña, eta nere Ama Andrea; zure Seme bacar, Jesucristo nere Jauna obiratua gelditzen da; eta Zu, Ama maitea, echeratzen zera bacarrie zure begiyetaco argi eder, eta Biyotzeco bizitz gabe. Zeruco aingeru guztiyac lagundu dizazutela, ¡o Mariya samintasunez gain egiña! nic biyotz-biyotzetic damu det bai, nere pecatuaz Zuri orrenbeste atsecabe emana. Ama maitea, ni izan naiz eralle gogorra, ni, nere gaizta-keriz zure Seme guziz gozoari biziya kendu diyotana. Zuretzat aiñ gogorra izan ba-

naiz ere, urricaltasuna es-
catzen umilki auspeztzen nai-
tzatzu; zure urricaltasun an-
diyan nere ustetsi guziya
daucadalaco; Samintasun
oyen bitartez, merezi ez de-
dan barcaziyua irichico de-
dala. Nere Ama guziz atse-
cabetua, asmo sendoa ar-
tzen det, nere bizitz gaiz-
toa utzi, eta bertatic bizitz
berri bat asitzeco, zure la-
guntz indartsua nere aldez
detala, beraren bidez betico
gloriya zurekin batean goza-
tzea irichi dezadan; baita ere
escatzen dizudan mesede au,
Jaungoicoaren glori geyago-
raco eta nere animaren one-
raco izan bear badu. Alassen.

Zazpi Agur Mari eta zazpi Glori.

ANTIPHONA

Cum vidisset Jesus matrem stantem juxta crucem, et discipulum quem diligebat, dicit matri suæ: Mulier, ecce filius tuus, deinde dicit discipulo: Ecce mater tua.

Ÿ. Ora pro nobis Virgo dolorosissima.

R. Ut digni efficiamur promissionibus Christi.

OREMUS

Deus, in cujus passione, secundum Simeonis prophetiam, dulcissimam animam gloriosæ Virginis et Matris Mariæ doloris gladius pertransivit: concede propitius,

ut qui transfixiónem ejus et
passiónem venerádo recóli-
mus, gloriósis méritis et pré-
cibus omnium sanctórum
cruci fidéliter astántium in-
tercedéntibus, passiónis tuæ
efféctum felícem consequá-
mur. Qui vivis et regnas in
sæcula sæculorum. Amen.

JESU-CRISTOREN ZAURI SANTUEN
AGURPENA

Ezkerreco oñeco Zauriyari.

¡O nere Jesus maitagarri-
yaren zauri chit santua! nere
biyotzeco maitetasun guziaz
muñ egiten dizut; umilki es-
catzen dizudala, nere ibillera
gaiztoz egindaco charkeri
guziyen barcaziyua.

Aita gure, Agur Mari ta Glori bat.

Escuico oñeco Zauriyari.

¡O nere Jesus maitagarri-
yaren zauri chit santua! nere
biyotzeco maitetasun guzti-
yaz muñ egiten dizut, umilki
escatzen dizudala, nere itz

eta egipen guztiaz egindaco
charkeri guztiyen barcazi-
yua.

Aita gure, Agur Mari ta Gloria.

Ezkerreco escuco Zauriyari.

¡O nere Jesus maitagarri-
yaren zauri chit santua! nere
biyotzeco maitetasun guzti-
yaz muñ egiten dizut; umilki
escatzen dizudala, nere begi
eta beste sentimen guztiyaz
egiñ dizkitzudan charkeri
guztiyen barcaziyua.

Aita gure, Agur Mari ta Gloria.

Escuico escuco Zauriyari.

¡O nere Jesus maitagarri-
yaren zauri chit Santua! nere
biyotzeco maitetasun guzti-
yaz muñ egiten dizut, umilki

escatzen dizudala, nere oroimen, adimen eta naimen guztiyaz egindaco charkeri guztiyen barcaziyua.

Aita gure, Agur Mari ta Gloria.

Sayetz santuco Zauriyari.

¡O nere Jesus maitagarriyaren zauri chit santua! nere biyotzeco maitetasun guztiyaz muñ egiten dizut, umilki escatzen dizudala, zure Biyotz maitetsua burnizeco lantza gogorrac josi zuan bezela, eta zure Ama samintasunez betearena ezpata zorrotzac; alasse zure maitetasun gozoaz nere biyotza josi dezazula, Zu openditu baño eriyotza nayago izan dezadan. Ala izan bedi.

BOST ZAURIAI AIZKEN OTOITZA.

Nere Jaun eta Jainco Jesuscristo, Gurutzean bost zauri, eta zure Necaldiyan ezin conta ala, guri ziñiguzun maitetasunaz artu ziñitua-nacatic; biotzeko damuz eta umilki erregutzen dizugu, arren, zure ontasunaz oraiñ gorde, eta gero beti betico zoriontasunera eramán gaitzatzula. Ala izan bedi.

SAMIÑ KALEA

Sarritaco *Samin kalean*
Negarrez dabill
Doloretaco
Birjiña;
Mindura larriz
Bere Biyotza
Itsaso garratz
Egiña.

Aldiyac: Samintasunez
Ekusi zuan
Birjiñak Seme
Justua;
Borrero beltzak
Zeramatela
Soka gogorrez
Estua.

Lenbizikoan
Amak etzuan
Ezautu bere
Semerik;
Gure Jaun ona
Zijoalako

Bere itsura
Galduric.

Chit zorrotza zan
Ama laztana
Igaro zuan
Ezpata;
Ez dezake inork
Adi erazi
Adigarriya
Ez da ta.

Pekatuaren
Samintasunak
Josi ziyoten
Biyotza;
Zeru-indarra
Izan ezpalu,
Geratuko zan
Illotza.

Semeak agur
Egin ziyonean,
¿Ama nola zan
Gelditu?
Eguzki ederra
Illundu eta
Illargiya zan
Goibeldu.

Itsas-ujolen
Garraztasunak
Biyotz batean
Balira,
Ama onaren
Samintasunaz
Alderatzeko
Ez dira.

¿Nork izango du
Biyotz aiñ gogor
Biguñduko ere
Ez dana,
Penaz josirik
Ekusitzean
Gugatik Ama
Laztana?

Utzi zadazu,
Ama maitea,
Negar egiten
Zurekin;
Pekatuaren
Ondoren miñak
Malkoz ditzadan
Desegin.

BIRJIÑ AMAREN
SAMINTASUNAK

SARRITAKO

Ama maitea
Nik Zurekin
Damuz nai nuke
Negar egin.

ALDIYAK

Zure samintasunak,
Ama chit laztana,
Biyotz triste ortatik
Betoz neregana,
Ni naiz zure Biyotza
Mindu dizutana,
Nere gaizakeriyaz
Jesus il detana.

Ama, Zu ekustean
Miñez larriturik,
Nere biyotza daukat
Damuz urraturik,

Il naiko nukeala
Negarrez urturik,
Zure malko garratzak
Chukatzeagatik.

Zu zera Ama garbi
Errurik gabea,
Jesusekin batean
Nere ongillea;
Ni naiz berriz borrego
Gogor eraillea
Miñak nigana betoz,
Ni naiz gaizkillea.

Ekusten zaitut, Ama,
Nere naitasunez,
Itsaso bat egiña
Mindura garratzez;
Orregatik nai nuke
Garbayaren miñez,
Nere biyotz gogor au
Lertzea negarrez.

Oñaze-naigabeak
Onez eramaten,
Ikastea nai nuke
Nik Zuri jarraitzen,

Galbariyo-mendiyan
Jesusi laguntzen,
Gurutz aldamenean
Zurekin egoten.

Ama, nik egon nai det
Gurutze oñean,
Malkotan urtu nai det
Zurekin batean;
Nere pekatu danak
Garbitu ditean,
Gero Zu ekusteko
Zeru ederrean.

A. M. D. et B. V. M. G.

astiro Birjin Amaren Samintasunak
Gustiak batera



A ma mai te a Nik hure kin



Damuznainu ke negar e gin



Damuznainu ke negar e gin



Hu re sa min ta su nak Ama chit larta



na Bi yotri tis te or ta tik

Handwritten musical score on aged paper, featuring six staves of music with lyrics in French. The score includes various musical notations such as notes, rests, and dynamic markings.

Lyrics:
Be toz nere ga na Xi nair tu re Bi
tra Moir du du ru ta na
Ne re gair ta ke ri ar
Jesus il de ta na Je
sus il de ta na

Annotations:
- *eres* above the first staff.
- *40* above the second staff.
- *F* (Forte) above the third staff.
- *1^o* above the third staff.
- *Tempo* above the third staff.
- *rit* (ritardando) above the fifth staff.
- *Molto* above the fifth staff.



